

DBH 1. maila

Hautazko ikasgaia	Deskribapena
Frantsesa	Lehenengo ikasturte honetan, ikasleek hizkuntza eta kultura berriak ezagutzeko aukera dute. Ikasgariaren helburua oinarrizko edukiak bereganatzea da eguneroko elkarrizketetan eta testuinguru errazetan komunikatu ahal izateko. Era berean, Frantziako eta beste herrialde frankofonoen kultura, ohiturak eta gizarte arloak ikasten dira, hizkuntza modu zabal eta integratuan barneratzeko. Iturri eta ezaugarri anitzeko dokumentuen bidez eta metodologia aktiboa eta deigarria abiapuntuz, ezagutza berriak indartzen dira eta hizkuntzen eta kulturen arteko konparaketak eta loturak ezartzen ikasten da.
Alemana	Alemana irakasgaian, ikasleek lan munduan eta Europan garrantzi berezia duen hizkuntza honen ezagutza eta erabilera bereganatuko dute: Berlingo kale bizietatik Suitzako Alpeetaraino eta Viena ederretik igaroz, klase-ordu bakoitza aukera bat izango da ikasteko eta horizonteak hedatzeko. Metodologia dinamiko eta entretenigarri baten bitartez, komunikazio eraginkorrerako lau gaitasunak landuko dira (ahozko eta idatzizko ulermena eta idatzizko eta ahozko ekoizpena). Aldi berean, kultura germaniarra bereziki azpimarratuko da, kulturen arteko komunikazioa eta ulermena sustatzeko. Gainera, hala nahi duten ikasleei Goethe Institut-eko azterketa ofizialetarako prestakuntza eskainiko zaie.
Osasun fisiko eta emozionala	Egoera motorretan jardutea, haien osasun fisikoa hobetzeko. Mugimenduan dauden bitartean emozioak kudeatzea, autonomikoki jarduera fisikoaz gozatzeko eta ongizate pertsonala lortzen eta estresa murrizten laguntzeko. Egoera sozomotorren bidez beste pertsona batzuekin harreman onak izateko gaitasuna garatzea. Adibideak: Joko eta jolasak, emozio kudeaketa dinamikak, kirol egokituak, gaitasun fisikoak, etabar.
Teknologia eta digitalizazioa	Teknologiaren munduan hasteko lehen urratsak emango ditugu ikasgai honetan, taldeka eta proiektuen bidez gehienbat lan egiten. Prozesu teknologikoa, marrazketa teknikoa, materialak, egiturak, elektrizitatea eta ingurune digitala landuko dugu era orokor batean, arlo honen hastapenak ezagutzeko.
Antzerkia	Ikasgaia tailer gisa proposatzen da, praktikoa, parte-hartzailea eta interaktiboa. Ikasgaia aukeratzen duten ikasle guztientzat erabilgarria eta eskuragarria izango da, haien gaitasun artistiko, adierazkor eta linguistikoak areagotzeko. Lanketa horrek, eragin positiboa izango du ikaslearen garapen kognitibo, artistiko, intelektual eta fisikoan. Gainera, ikasleen komunikazio- eta sormen-gaitasunen garapen, antzerkian aurkitu ditugun balio zibikoak eta etikoak lotuz antolatuko da irakasgaia. Ezagutza teoriko, kritiko eta sozial guztiak bereganatzeko, talde-antzezlan bat sortu, prestatu eta ekoiztuko da.

DBH 2. maila

Hautazko ikasgaia	Aukeratzeko baldintzak	Deskribapena
Frantsesa	Dbh 1. maila egina izatea.	Bigarren ikasturte honetan, ikasleek hizkuntza eta kultura berriak ezagutzen jarraitzeko aukera izango dute. Ikasgariaren helburua oinarritzko tresnak bereganatzea da eguneroko elkarrizketan eta testuinguru errazetan komunikatu ahal izateko gero eta autonomia handiagorekin. Era berean, Frantziako eta beste herrialde frankofonoen kultura, ohiturak eta gizarte arloak ikasiko dira, hizkuntza modu zabal eta integratuan barneratzeko. Iturri eta ezaugarri anitzeko dokumentuen bidez eta metodologia aktiboa eta deigarria abiapuntuz, ezagutza berriak indartzen dira eta hizkuntzen eta kulturen arteko konparaketak eta loturak ezartzen dira.
Alemana		Alemana irakasgaian, ikasleek lan munduan eta Europar garrantzi berezia duen hizkuntza honen ezagutza eta erabilera bereganatuko dute: Berlingo kale bizietatik Suitzako Alpeetaraino eta Viena ederretik igaroz, klase-ordu bakoitza aukera bat izango da ikasteko eta horizonteak hedatzeko. Metodologia dinamiko eta entretenigarri baten bitartez, komunikazio eraginkorrerako lau gaitasunak landuko dira (ahozko eta idatzizko ulermena eta idatzizko eta ahozko ekoizpena). Aldi berean, kultura germaniarra bereziki azpimarratuko da, kulturen arteko komunikazioa eta ulermena sustatzeko. Gainera, hala nahi duten ikasleei Goethe Institut-eko azterketa ofizialetarako prestakuntza eskainiko zaie.
Osasun fisiko eta emozionala		Egoera motorretan jardutea, haien osasun fisikoa hobetzeko. Mugimenduan dauden bitartean emozioak kudeatzea, autonomikoki jarduera fisikoaz gozatzeko eta ongizate pertsonala lortzen eta estresa murrizten laguntzeko. Egoera sozomotorren bidez beste pertsona batzuekin harreman onak izateko gaitasuna garatzea. Adibideak: Joko eta jolasak, emozio kudeaketa dinamikak, kirol egokituak, gaitasun fisikoak, etabar.
Pentsamendu kritikoa eta autonomia		Pentsamendu Autonomo eta Kritikoaren Garapena ikasgai filosofikoa da, eta pertsona bakoitzarentzat pentsamendu propioa eta bakarra sortzea du helburu. Ikasgai honetan, ikasle bakoitza munduan bere lekua aurkitzen saiatuko da, bere ideiak argituz eta beste hainbat berri aurkituz. Bizitzako arazo funtsezko eta unibertsalak ikuspegi kritiko batetik aztertuko dira, eta horien artean egongo dira: XXI. mendeko gizartearen berezko arazoak, Filosofiaren hasieratik dauden arazo ebatzigarriak, nerabezaroko eta ikasleen adineko arazoak, eta edozein adinetako gatazkak.
Ortua		Ikasgela tradizionalaz gain, ikasleek kanpo ingurunearekin kontaktua izateko aukera daukate ikasgai honetan eskolako ortuaren bitartez. Esperimentazioa eta praktika sustatuz, ortuarekin erlazionatutako ezagutzak (landaketa, sasoiko produktuak, hazitegiak...) ikasiko dira, modu independente zein kolektiboan lan eginez.

DBH 3. maila

Hautazko ikasgaia	Aukeratzeko baldintzak	Deskribapena
Frantsesa	Dbh 2. maila egina izatea.	Ikasturte honetan, ikasleen komunikatzeko konpetentzia mailak gero eta konplexuagoak diren testuinguruetan gero eta hobeto moldatzeko aukera ematen die. Lau gaitasunak jorratzen diren arren, ahozko eta idatzizko adierazpenari garrantzi handiagoa emango zaio. Era berean, Frantziako eta beste herrialde frankofonoen kultura, ohiturak eta gizarte arloak ikasten jarraituko da, hizkuntza modu zabal eta integratuan barneratzeko. Iturri eta ezaugarri anitzeko dokumentuen bidez eta metodologia aktiboa eta deigarria abiapuntuz, ezagutza berriak indartzen dira eta hizkuntzen eta kulturen arteko konparaketak eta loturak ezartzen dira.
Kultura klasikoa		Kultura Klasikoa irakasgaia funtsezkoa da ikasleen prestakuntza akademikoan, mendebaldeko zibilizazioaren sustraiak ulertzeko aukera ematen dielako. Gizarte greko eta erromatarren azterketaren bidez, ikasleek funtsezko ezagutzak eskuratzen dituzte historiari, hizkuntzari, filosofiari, arteari, mitologiari eta baita zuzenbideko zertzeladaren bati buruz ere. Alderdi horiek gure gaurko mundu modernoa sakon moldatu dute. Beraz, irakasgaia errealitatea ulertzeko erraminta ezhinbea da. Irakasgaiak ematen dizkien ezagutzak alde batera utzita (gaur egungo oinarri historiko-soziala, antzinako hizkuntzen eragina eta arteen estimazioa) irakasgaiak ikasleengan zenbait balio irakatsi nahi ditu. Errespetua, pentsamendu kritikoa, jakin-min intelektuala eta talde-lana dira ikaskuntza gauzatzeko ardatz nagusiak. Ikasleen pentsamendua eta prestakuntza pertsonala aberasten dituzten balioak dira, baita munduari ikuspegi zabalago eta oinarrituago batekin aurre egiteko prestatzen diuztenak ere, lehen aipatu dugun bezala.
Adierazpen artistikorako hastapenak		Teknika grafiko - plastikoak jorratzen dira teknika eta material desberdinak erabiliz, argizariak, tenperak, buztina... Material hoiien artean, ekologikoak, iraunkorrak eta berritzaileak ere erabiltzen dira praktika artistikoa lantzeko. Artea eta natura elkartzuz, 3 dimentsioko artelanak sortzeko gaitasuna jorratzeko aukera izaten.
Osasun fisiko eta emozionala		Egoera motorretan jardutea, haien osasun fisikoa hobetzeko. Mugimenduan dauden bitartean emozioak kudeatzea, autonomikoki jarduera fisikoz gozatzeko eta ongizate pertsonala lortzen eta estresa murrizten laguntzeko. Egoera sozomotorren bidez beste pertsona batzuekin harreman onak izateko gaitasuna garatzea. Adibideak: Joko eta jolasak, emozio kudeaketa dinamikak, kirol egokituak, gaitasun fisikoak, etabar.
Pentsamendu kritikoa eta autonomia		Behar diren abileziak finkatzea etengabe aldatzen ari den mundu konplexu honen aurrean ikasleek pentsamendu-autonomia lortu dezaten. Inguruan duten mundua interpretatzen eta bertan duten lekua aurkitzen lagunduko die. Heziketa filosofikoa eskaintzea gizarte demokratiko bat printzipio, balio eta praktika etiko, politiko eta zibikoaren inguruan egituratzeko. Pertsona ororen garapen integralerako behar diren arazoari eta emozioei buruz gogoeta kritikoa

		egingo da.
Produkzio musikala		Gaur egun Musika obrak sortzeko beharrezko jakintzak lantzen dira: Pieza desberdinen entzuketa eta analisi kontzientea, musika tresna, garai eta estilo desberdinen interpretazio teknikak, soinuaren erabilera zineman, grabaketa prezesua burutzeko beharrezko materiala eta jakintzak, audioaren edizioa, akustika, tresna digital desberdinen erabilera, gure obraren argitalpen estrategiak eta eskubideak. Prozesuan, praktika musikalak dakartzan onurak bereganatzen dira: Emozioen kudeketan, autoestimuaeren garapenean, konfidantzan eta talde lanean besteak beste.

DBH 4. maila

Hautazko ikasgaia	Aukeratzeko baldintzak	Deskribapena (laburra)
Frantsesa	Dbh 3. maila egin izana.	Ikasturte honetan, ikasleen komunikatzeko konpetentzia mailak gero eta konplexuagoak diren testuinguruetan beharrezkoa den zuzentazunez moldatzeko aukera ematen die. Lau gaitasunak jorratuko direnez arren, ahozko eta idatzizko adierazpenari garrantzi handiagoa emango zaio. Era berean, Frantziako eta beste herrialde frankofonoen kultura, ohiturak eta gizarte arloak ikasten jarraituko da, hizkuntza modu zabal eta integratuan barneratzeko. Iturri eta ezaugarri anitzeko dokumentuen bidez eta metodologia aktiboa eta deigarria abiapuntuz, ezagutza berriak indartzen dira eta hizkuntzen eta kulturen arteko konparaketak eta loturak ezartzen dira.
Adierazpen artistikoa	Fisika-kimika eta teknologia blokea aukeratu izana.	Teknika grafiko - plastikoak jorratzen dira teknika eta material desberdinak erabiliz, argizariak, tenperak, buztina... Material hoi en artean, ekologikoak, iraunkorrak eta berritzaileak ere erabiltzen dira praktikaartistikoa lantzeko. Artea eta natura elkartzuz, 3 dimentsioko artelanak sortzeko gaitasuna jorratzeko aukera izaten.
Digitalizazioa	Fisika-kimika eta teknologia blokea aukeratu izana edo fisika-kimika eta biologia blokea aukeratu izana.	Etorkizun digitalerako prestatzeko eta teknologiaren munduan murgiltzeko aukera ematen du. Guztia modu dinamiko eta praktikoa, talde-lanean eta arazoak konpontzen ikasiz. Webguneak diseinatuko ditugu. - Irudiak eta bideoak editatuko ditugu, edukia sortzeko. - Programazio hastapenak. Aurten (24-25 LEGO robota programatu dugu hainbat misio burutzeko, ozeano maketa batean. - Sare sozialetan eta interneten identitate digital segurua nola mantendu ikasiko da. - Ordenagailu baten barrualdea aztertuko da, hardware eta softwarearen funtsezko osagaia ezagutuz.
Musika	Ekonomia eta latina blokea aukeratu izana.	Gaur egun Musika obrak sortzeko beharrezko jakintzak lantzen dira: Pieza desberdinen entzuketa eta analisi kontzientea, musika tresna eta garai desberdinetako estilo desberdinen interpretazio teknikak, grabaketa prozesuarekin lotutako materiala eta jakintzak, audioaren edizioa, akustika, tresna digital desberdinen erabilera, gure obraren argitalpena... Prozesuan, praktika musikalak dakartzan onurak bereganatzen dira: Emozioen kudeketan, autoestimua ren garapenean, konfidantzan, talde lanean...
Teknologia		Ikasgai honetan gai berri desberdinak jorratuko dira: Pneumatika eta hidraulika, etxeko Instalazioak, elektronika digitala eta analogikoa eta Steam proiektua, taldeka eta proiektuen bidez gehienbat lan egiten.

Kultura zientifikoa		Gure ikasgaiaren helburua da herritar kritikoak, arduratsuak eta aurrerapen zientifiko eta teknologikoekin zerikusia duten eztabaidetan parte hartzeko gai direnak prestatzea. Ez dugu kontzeptu zientifiko zehatzik ikasiko, baizik eta prozesu zientifikoa ulertzeko, informazioa interpretatzea eta horren arabera erabakiak hartzeko gaitasunak garatzen saiatuko gara.
Ikus-entzunezkoak		Irakasgai honek ikus-entzunezko komunikazioaren historiari, bitartekoei eta prozesuei buruzko oinarritzko ezagutzak emango dizkizu. Fikziozko eta ez-fikziozko produktuak sortzen, ekoizten eta egiten ikasiko duzu. Argazkiarekin lotutako jarduerak, larburmetraiak, podcastak.
Matematika lantegia		Erronka ezberdinen bidez ikasleek pentsamendu matematikoa garatu dezaten da irakasgai honen helburua. Arrazonamendu logikoa, arazoen ebazpena eta eguneroko egoeretan aplikatzeko estrategiak lantzen dira. Klasean ataza ezberdinak egiten dira, jolasak, erronkak, tangram, etabar.
Garapen pertsonalari, eta sozialari aplikatutako filosofia		Filosofiaren baliabideak erabiltzea, eguneroko bizitzako egoerei gogoetaren eta espiritu kritikoaren bitartez aurre egiteko. Hori horrela izanik, filosofiaren oinarritzko auziak mahaigaineratuko dira, eta Filosofiak historian zehar proposatutako galde-erantzunak erabiliz, Filosofiak berak gaur egun duen eginkizuna balioesten saiatuko gara. Baliabide desberdinak erabiliz, hainbat gai landu nahi dira.